

6.AKTA.

2001eko maiatzaren 2ko **APARTEKO GOBERNU BATZORDA.**

Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean, lehenengo deialdian eta Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Behin Behineko Idazkari jauna bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira.

Joseba Xabier Portugal Arteaga j.
Obdu Lorenzo de Dios a.

araz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ezin etorria adierazi du Rikardo del Pozo Gil de Albornoz jaun zinegotziak. Ez du adierazi ezin etorria Anjel Ouviña Vidal jaun zinegotziak.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea legez eratzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 18:00etan ondoren Gaizerrendako puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta 5a. 01-4-5koa irakurri eta onartzea.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen den akta, Gobernu Batzordeak erabaki du bere osoan ontzat eman eta dagokion Akta-liburuan transkribatzea.

2.- Udal enpleguak egindako kilometro-kopurua.

Gobernu Batzordeak erabaki du ONTZAT EMATEA JOAN MARKOS ONEKA LABIANO udal enplegu jaunaren desplazamendu gastuak, 2001eko apirilari dagozkionak, 22.960,- pezetako inportez, 574 km x 40,- pta. aplikatzearen emaitza, hau guztia Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/93 Dekretuko 14. artikuluaaren arabera, indarreango E.F.A.P.E.B.A.E.-ko IV-6 Ebazpen iragankorrari buruzkoarenera.

3.- 4/01 zenbakiko kontu eta fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 4/01 zka. daraman kontu-fakturen erlazioa, HAMABI MILIOI ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA LAU (12.733.984,-) pezetakoa, baina hurrengo transkripzio zuzenketak egin dira:

- 4. orrialdean, erregistro zenbakia 246-0000-2001: "Herri argiteriarengatik" dioen lekuan esan behar du:

"Hirigintz mantenimeduarengatik".

- 11. orrialdean, erregistro zenbakia 632-000-2011:

"Portugal Arteaga Iñaki" dioen lekuan esan behar du:

"Portugal Arteaga Xabier".

4.- "San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide kalea hiri Area berriro urbanizatzeko" obraren 4. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea "San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide kalea hiri Area berriro urbanizatzea" obraren 4. ziurtagiria, Joan Karlos Lapazarán Izargain (Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea) Obra Zuzendari jaunek luzatua, CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A.enpresaren alde HAMABI MILIOI BEDERATZIEHUN ETA LAU MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA BAT (12.904.821,-) pezetako inportez. Hau guztia D-943/00 Disposamenduaren kargura.

5.- "Ulia Etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko bidea" obraren 5. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak aurrez ikusirik Udal Aparejadoreak emandako aldeko txostena, erabaki du ontzat ematea "Ulia Etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko bidea" obraren 5. ziurtagiria, Eduardo Satostegi Obrako Jaun Zuzendariak luzatua CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresaren alde, ZORTZI MILIOI BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEI (8.927.840,-) pezetakoa. Hau guztia D-824/00 Disposamenduaren kargura.

6.- Albaola Elkarteari dirulaguntza.

Kultura eta Hezkuntzaren Udal Batzorde Informatiboak 2001eko apirilaren 5ean emandako diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak

ERABAKI DU

ALBAOLA ELKARTEARI 100.000,- pezetako subentzioa ematea aurtengo maiatzaren 10etik 12ra HIRU IBAI Rallyea antolatzeko, lehenago aurrekontua aurkeztu beharko duelarik.

Hau guztia 05-481-451-00-01 partidaren kargura, indarreango udal aurrekontuko A-406/01 Baimendua.

Halaber gero justifikatu beharko ditu gastu guztiak eta proiektua finantziatzeko jaso dituen laguntza publiko guztiak.

Baldintza hauek ez badira betetzen subentzioa kendu ahalko da.

7.- Ondare erantzukizunari buruz hainbat erreklamazio.

A) 2001eko martxoaren 6ko Gobernu Batzordearen akordioaren aurka Erreposizio Errekurtsoa, akordioaren bidez gaitzesten baitzen Laura Vidal Martiñan andreak egin erreklamazioa Pasaia udalerrri honetako 47-49 zenbakien parean erori zelako.

Ikusirik M^a Laura Vidal Martiñan andrearen errepresentazioak ezarritako Erreposizio Errekurtsoa, ondoko arrazoietan oinarritua:

- 1.- Ez dela kreditatua geratu estoldaren estalkia ez zela zorutik ateratzen gertatuak izan ziren momentuan, orain lekukoaren froga proposatuz.
- 2.- Ustegabeko erorketa izan zela ukatuz.
- 3.- Erorketa eta estoldaren egoeraren artean badagoela zergatiazko loturarik baieztatuz.

Kontuan izanik prozeduraren izapidean zehar erreklamatzailerak ez zuela eskatu inolako frogarik egitea eta ez zuela lekukorik bazen ere aipatu.

Kontuan izanik errekurtsoen izaera aztertzailea.

Kontuan izanik zerbitzu publikoen funtzionamenduaz aparteko arrazoiz ere erorketak eman daitezkeela.

Kontuan izanik espedientean ez dela aurkitzen zergatiazko loturarik zerbitzu publikoaren funtzionamenduaz eta aipatutako kalteen artean.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Tartekaturiko Erreposizio Errekurtsoa gaitzestea akordio honen aurrekarietan azaldutako fundamentazioan oinarriturik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea esanez bere aurka Liskar Auzi Administratiboko Errekurtsoa tarteka daitezkeela bi hilabeteko epe barruan Euskadiko Justiziaren Liskar Auzi Administratiboaren Aretu aurrean.

B) Jose Luis Isarch Ruiz jaunak egindako kalte-erreklamazioa Pasai Donibanen Larrabide Baserrira doan galtzadaren egoera txarra dela eta autoan izandako kalteak direla eta.

Ikusirik JOSE LUIS ISARCH RUIZ jaunak egindako erreklamazioa 1999ko abenduaren 25ean M-5489-OS matrikula duen ibilgailuan, Pasai Donibaneko Larrabide baserrira doan galtzadaren egoera dela eta.

Ikusirik Caser konpainia aseguratzailearen txostena non esaten den kaltetuari ordaindu diotela erreklamaturiko kalte materialen ordaina.

Ikusirik aipatu Konpainiarekin suskribaturiko kontratua, zeinaren bidez Udal honi dagokiola 100.000,- pezeta arteko frankizia ordaintzea, polizak dioen bezala.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- JOSE LUIS ISARCH RUIZ jaunari 100.000,- pezeta abonatzea 2101-00-52-23-0006767792 zka. duen kontuan.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsuak seinalatuz.

C) M^a Rosa Torrego Mijosa andreak egindako erreklamazioa Markina injineruaren kalean trafiko-seinale bat eror zelako bere autoan izandako kalteak direla eta.

Ikusirik DEAL & CLAIME, S.A. enpresak aurkeztutako erreklamazioa M^a ROSA TORREGO MIJOSA andreaken izenean, SS-6067-AH matrikula duen Renault 19 ibilgailuan izandako kalteak direla eta, Pasaia udalerrri honetako ibilgailuaren gainera trafiko seinale bat erori zitzaiola eta, 2001eko otsailaren 7an eman zen haizete bortitza kausa.

Ikusirik Udaltzaingoak suskribaturiko txostenak, eta baita espedientean agertzen den erreportaje fotografikoa.

Ikusirik Udal Idazkariak aurrez emandako txostena.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Aurkeztutako erreklamazioa gaitzestea istripua aparteko kondizio meteorologikoak gertatu zirelako eman baitzen eta gertatuak eman ziren lekuan debekatua dagoelako aparkatzea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekursoak seinalatuz.

D) Josefa Lafourcade Angulo andreak egindako kalte-erreklamazioa Euskadi etorbideko 47-49 zenbakien parean erori zelako 00-8-17an.

Ikusirik JOSEFA LAFOURCADE ANGULO andreak egindako erreklamazioa 2000ko abuztuaren 17an erori zelako Pasaia udalerrri honetako Euskadi etorbideko 47-49 zenbakien parean.

Ikusirik Udaltzaingoaren eta Zerbitzu, Sare eta Mantenimenduaren Sailaren txostenak, espedientean agertzen direnak.

Ikusirik bertako gainerako dokumentazioa.

Kontuan izanik ekarritako txosten medikoen arabera ezin dela kreditatu arrastoren bat gheratu zaiola.

Kontuan izanik istripuan lekuko izandakoak aurkezteko aukera eman zitzaiola baina ez dela inolako testigantzarik ekarri, espaloiaaren egoera ezin hobea izanik oinezkoak bertan ibiltzeko eta ez duela aurkeztu espediente honetan erorketa gertatzeko salatzen den egoera kaltetua.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- JOSEFA LABOURCADE ANGULO andreak egindako erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekursoak seinalatuz.

8.- Obra lizentzia, Eskalantegi, 3.

Gai hau mahai gainean geratu da sakonago aztertzeko.

9.- Bidasoa, 2 kalean obrak legalizatzeko eskaera.

Ikusirik Pasaia udalerrri honetako Bidasoa kaleko 2ko 4. B pisoan lizentziarik gabe egindako legalizazio-espedita.

Ikusirik Udal Aparejadoreak 2001eko apirilaren 4an eta Hirigintzako Teknikariak 2001eko apirilaren 11n emandako txostenak.

Kontuan izanik bere etxebizitzan 5 leiho ordezkatzeko obra legalizatu daitekeela, honen aurrekontua 200.000,- pezetakoa izanik.

Kontuan izanik jarri den pertsiana monobloca duen aluminio lakatuzko atea ez dituela ordezkatu den jatorrizko atearen dimentsioak mantendu, hutsunearen dimentsioak handiagoak izanik, eta Pasaia Planeamenduko Arau Subsidiarioen 84.2 artikulua araberak, alterazio horrek suposatzen duela edifikazioaren fatxadaren tratamendua modifikazioa, hirigintz arautegia hautsiz.

Ikusirik Korporazio Lokalen Zerbitzuen Arautegiko 9. artikulua eta Hirigintz Diziplinaren Arautegiko 4. artikulua eta Zoru Legearen Testu Bateratuko 184.3 artikulua.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- JUAN JOSE GONZALEZ GONZALEZ jaunari Bidasoa kaleko 2ko 4. B pisoan metalezko 5 leiho ordezkatzeko lizentzia ematea, 200.000,- pezetako aurrekontuarekin.

BIGARREN.- Pertsiana monobloc kolore urdineko aluminio lakatuzko atea instalatzeko legalizazioa ez ematea, ordezkatzeko jatorrizko atearen dimentsioa ez delako mantentzen.

HIRUGARREN.- Fatxada modifikatzeko egin diren obrak legeztatu ezinezko deklarazioa eta lehengo banaketara itzultzea agintzea eta legez kanpo egindakoa botaraztea.

LAUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

Hala ere Balkoiak Ixteko Udal Ordenantza tramitazioan dagoenez, akordio honen bidez interesatuak inbitatzen dira Hirigintzako Bulego teknikoarekin hitzordua jartzeko gaiari irtenbide egoki bat emateko.

10.- Arrandegi 2.05/2 Hirigintza Jarduerarako Eremuaren Kontentsazio Proiektuaren behin-betiko onespina.

Ikusirik erreferentziako espedita non agertzen den ez dela formulatu Gipuzkoako Buletin Ofizialean agertuz gero eman zitzaion hamabost (15) eguneko epe barruan inolako alegaziorik edota oharrik Arrandegi 2.05/2 Hirigintza Jarduerarako Eremuaren Kontentsazio Proiektuaren hasiera bateko onarpenari buruz, SERAFIN SAÑUDO

LASAGABASTER jaunak aurkeztua, ORTUIBAR, S.A.-ren izenean eta Antonio Mateos García jaun abokatuak erredaktatua.

Ikusirik 2001eko apirilaren 9ko Hirigintzako teknikariaren txostena, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Behin betirako ontzat ematea Arrandegi 2.05/2 Hirigintza Jarduerarako Eremuaren Konpentsazio Proiektuaren onarpena, ORTUIBAR, S.A. jabe bakarrak aurkeztua, ez delako oharririk aurkeztu eta gainerako baldintzak bete direlako.

BIGARREN.- Akordio hau Gipuzkoako Buletin ofizialean ateratzea legozkiokeen errekursoak seinatuz.

HIRUGARREN.- Interesatuari behar bezala jakinarazi zaizkion eskubideak likidatzea.

LAUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekursoekin.

11.- Pasaiako Trintxer-Azkuene 2.06, 2.08 eta 2.09 Hiri Eremua hiri berritzeko dokumentua egitearen esleipena.

Ikusirik Pasaiako Trintxer-Azkuene 2.06, 2.08 eta 2.09 Hiri Eremua hiri berritzeko dokumentua erredaktatzeko kontrataziorako ekindako espedientea.

Kontuan izanik 2001eko apirilaren 5eko Gobernu Batzordearen akordioaren bidez kontratuaren esleipenaren tramitazioa urgente deklaratu zela prozedura irekiz eta lehiaketa forman, aktu berean onartutako Klausula Administratibo Berezien Pleguaren arabera.

Publikaturik lizitazio-iragarkia, bi proposamen agertu dira:

- 1. proposamena, LKS INGENIERÍA-k suskribatua, zeinen eskaintza ekonomikoa 10.422.419,- pezetakoa izanik eta 6 hilabeteko exekuzio-epea duena.
- 2. proposamena, UR & MA (Urbanismo y Medio Ambiente)-k suskribatua, zeinen eskaintza ekonomikoa 9.922.500,- pezetakoa izanik eta sei hilabete eta erdiko exekuzio epea duena.

Kontratazio Mahaiaren proposamenez eta Udal Arkitektoa aurrez luzaturik balorazio-txostena, ondorengo puntuazioekin:

XI.- ESLEITZEKO OINARRIZKO KRITERIOAK	URMA	LKS
I.- Lansariak murrizketa	5	4
II.- Entregatzeko epea murriztea	4	5
III.- Memoria teknikoa	30	40
IV.- Gaia esperientzia	17	20
V.- Ekipo teknikoa (Curriculum orokorra)	20	19
GUZTIAREN BALORAZIOA	76	88

Gobernu Batzordeak,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Lizitazio egintza ontzat ematea.

BIGARREN.- 2001eko apirilaren 30eko Alkatetzaren ebazpena berrestea, zeinen bidez esleitzen baitzaio Pasaiaiko Trintxer-Azkuene 2.06, 2.08 eta 2.09 Hiri Eremua hiri berritzeko dokumentua egitearen” lehiaketa LKS INGENIERIA-ri Korporazioarentzat proposamenik hoberena delako, HAMAR MILIOI LAUREHUN ETA HOGEITA BI MILA LAUREHUN ETA HEMERETZI (10.422.419,-) pezetaz eta 6 hilabeteko exekuzio-eparekin. Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-281/01 Baimenduaren kargura.

HIRUGARREN.- Adjudikatariari errekeritzea behin betiko bermea osa dezala eta kontratua formalizatu Klausula Administratiboen Pleguaren arabera notifikazioaren ondorengo HAMABOST egunen barruan.

LAUGARREN.- Adjudikatariari lehiaketako iragarkien gastuak likidatzea.

BOSGARREN.- Alkate jauna fakultatzea dagokion kontratu administratiboaren sinadurarako.

Eta aztertzeke beste gairik ezean, 19:00etan amaitutzat eman da batzarraldia, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.